

HAUTETSIEEN SEGURTASUNA. EAeko Udalerrien Elkarteak ostiralean bilduko da gaia aztertzeko

Eudelen adierazpena ez du babestuko PSE-EEK, ETaren aurka «epela» delako

Batasuna «ETaren menpeko» dela dioen beste proposamen bat aurkeztuko dute sozialistek

Humberto Unzueta | BILBO

PSEk ez du babestuko Eudelek EAeko udaletxe guztietara bidali duen giza eskubideen eta aniztasunaren aldeko adierazpena; zirriborroa idatzita dagoen moduan ez behinik behin. EAeko Udalerrien Elkarteak idatzi testuari «epela, mamirik gabea eta guztiz onartezina» iritzi ondoren, Rodolfo Ares eldun sozialistak alderdiei aurkeztuko dieten beste proposamen baten berri eman zuen, atzo, Bilbon eguniko prentsa agerraldian.

Sozialisten proposamenak dio Batasuna «ETaren menpeko» erakunde politikoa dela. Hala, Batasunaren babesa edo botoak gobernatzeko edo oposizioa egiteko ez baliatzeko es-

katzen die sozialistek gainerako alderdiei, Batasunak Eusko Legebiltzarreko «giltza» izan ez dezan.

Batasunarekiko jarrera gogortzeko eskatzen dio alderdi sozialistak EAJri. Joan den astean, Ibarretxek hautetsien segurtasuna dela-eta bultzaturiko alderdien forotik alde egitean, PPK Eudelen deklaraziotik oso urruti dagoela adierazi zuen. Gauza bera esan zion Patxi Lopez sozialisten idazkari nagusiak Ibarretxe lehendakariari, iragan astean izan zuten bileran.

Eudelen zirriborroa babestu ez arren, PSEk alderdien foroan jarraitzeko asmoa duela berretsi zuen Victor Garciak, sozialisten segurtasun gaietarako arduradunak. Hari beretik, bere al-



LUIS TEJIDO / EFE
Rodolfo Ares, atzo.

derdiak PP Segurtasun Batzordea itzultzeko saioak egingo dituela jakinarazi zuen Garciak.

Mehatxatutako hautetsien segurtasunerako batzorde tek-

nikoa eratzeaz gain, giza eskubideen eta aniztasunaren aldeko adierazpen instituzionala udalerrri guztietara eramatea adostu zuten Batasuna ez beste alderdi guztiek. Aipatu deklarazioa Eudelek bideratzea onartu zuten, eta hala egin zuen duela hilabete, alkate guztiei bidali eskutitzaren bidez. Bileraren ostean, PPK eta PSEk deklarazio etikoa Batasunarentzat «erronka» izango dela adierazi zuten.

Eudelek, ordea, PP eta PSEren atxikimendurik gabe ekingo dio bere urteroko Batzar Nagusiari, ostiral honetan. Bilkura Zumarragan izango da, bertako zinegotzi mehatxatuei elkartasuna adierazteko. Udalerrien Elkarteak egun horretan aurkeztu nahi zuen behin betiko adierazpena.

EUSKAL PRESOK

Barandaia presoak Zaragozako ospitalera eraman dute, ebakuntza egiteko

Erredakzioa | DONOSTIA

Bautista Barandaia euskal presoak Zaragozako ospitalera eraman zuten larunbat gauean, bere osasun egoerak okerrera egin eta gero. Barandaia «kolitis ultzerosa» du, gaixotasun sendaezina, eta ebakuntza egin behar diote; ziurrenik, aste honetan bertan.

Preso etxarriarra martxoan eraman zuten ospitalera lehen aldiz, urte hasieran hasi zen arren gaizki sentitzen. Hilabetera eman zioten senda-agiria. Etxerat-ek, presoak espetxean jasan duen «asistentzia eza» salatu du.

Rikardo Izaga aske

Rikardo Izaga Gonzalez presoak aske gelditu zen herenegun, hamasei urtez espetxeraturik egon ondoren. Izagari senide eta lagunek harrera egin zioten Gasteizen, arratsaldeko 19:00etan, Badajozko espetxetik iritsi berritan.

Bestalde, Oihane Errazkin eta Aintzane de Orkolaga, Fleury Merogis kartzelatik Fresnesera eraman zituzten, ostiralean. Fleuryko presoak mitarrian dira, protestan, eta espetxe aldatuta zigorra dela salatu du Etxerat-ek. Fresnesen ere isolatuta jarraitzen dute bi presoak.

Hain zuzen, presoen 33 senide asteburuan Fleury-ra joan ziren, eta kanpoaldetik elkartasun mezuak helarazi zizkieten.

ALDERDI POLITIKOEN LEGEA. Presazko prozedura erabilita, posible izango litzateke udarako abian jartzea

Erredakzioa | DONOSTIA

Jose Maria Aznar Espainiako presidentek Alderdi Politikoen legea indarrean jartzeko prozesuan «atzerapenik» ez duela nahi esan zuen atzo. Izan ere, legea uda baino lehen jarri nahi dute abian. Halaber, Espainiako Parlamentuan «ahal den adostasun handiena» lortzea bai, baina ez du nahi «egoeraz libratzeko konponketa politikorik».

«Espainiako gizarteak eta euskal gizarteak ez dute merezi

Aznarrek ez du «atzerapenik» nahi Alderdien Lege berria indarrean jartzeko prozeduran

atzerapenik eta legeari oztopoak jartzerik»; hala arrazoitu zuen Aznarrek PPren presa, eta Batasuneko kideei legez kanpo egotea gero eta gertuago dutela jakinarazi zien: «Zuen bila goaz; Espainian terrorismoa praktikatzen duten guztiak suntsituko ditugu».

Alderdi lege egitasmoa tramitatzean presazko prozedura erabiliz gero, posible izango litzateke legea uda baino lehen jartzea indarrean. Gobernuak, Parlamentuko bi taldek edota Kongresuko kideen bostenak eska dezakete prozedura hori.

Bestalde, CiUk jakinarazi du

20 bat emendakin jarriko dizkiola lege egitasmoari, Espainiako Parlamentuan; legea atzeraeraginezkoa izan ez dadin, besteak beste. Ez du osoko emendakinik egiteko asmorik.

Bestalde, Rafa Diez LABeko idazkari nagusiak Batasuna legez kanpo uztearen aurkako «mezu argia» bidaltzeko eskatu zien sindikatu abertzaleei, atzo. ESK sindikatuak ere gogor kritikatu zuen egitasmoa; «ideien eta pertsonen kriminalizazioa» salatu zuen.

EROSKI, Koop. Elk. ko.DELEGATUEN BATZAR NAGUSIRAKO ETA PRESTAMEN-BATZORDEETARAKO DEIALDIAK ETA EGUNEKO GAI-ZERRENDAK

BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA ETA EGUNEKO GAI-ZERRENDA	BAZKIDE KONTSUMITZAILEEN PRESTAMEN-BATZARRETRAKO EGUNEKO GAI-ZERRENDA	LANEKO BAZKIDEEN PRESTAMEN-BATZARRETRAKO EGUNEKO GAI-ZERRENDA
<p>Deialdia Data: 2002ko ekainaren 8a Ordua: 15:30 (1. deialdia) 16:00 (2. deialdia) Lekua: Arriola Kultur Aretoa, Borrio (Bizkaia)</p> <p>Eguneko gai-zerrenda</p> <ol style="list-style-type: none"> Aurreko aktaren onespenerari buruzko informea. 200 lko ekitaldiko, Sozietatearen Urteko Kontuak (Balantzea, Galdurabazien Kontua eta Txostena) eta Gestio Informea, aztertu eta, hala badagokio, onestea. Mendeko finantzaketa (ekainaren 24ko Euskadiko Kooperatiben 4/1995 Legeko 575 artikuluan araututakoa) igortzeko proposamena aztertzea, eta, bidezkoa bada, onartzea. Estatutu Sozialen 47 artikuluko Balantzeak Eguneratzeetik sortutako Erreserbaren xedapeneri dagozkionak aldatzeko proposamena aztertzea, eta, bidezkoa bada, onartzea. Soberakin Garbien banaketa. Estatutu eta legezko xedapenak: <ul style="list-style-type: none"> - Hezkuntza eta Sustapenerako Fondoaren banaketa. - Laneako bazkide sartu berrien obligaziozko ekarpenak eguneratzea. - Kapital sozialerako ekarpenen aplikatu beharreko interes-tasa finkatzea. - Borondatezko ekarpenen buruzko akordioa. Kontseilu Errektoraren berritzea. Errekurtso-Komitea berritzea. Eskari-galderak. 	<p>Deialdia</p> <p>ARABA Data: 2002ko maiatzaren 6a Ordua: 17:30 (1. deialdia) 18:00 (2. deialdia) Lekua: Principal Antzokia, Gasteiz</p> <p>CANTABRIA Data: 2002ko maiatzaren 7a Ordua: 17:30 (1. deialdia) 18:00 (2. deialdia) Lekua: Palacio de Festivales, Santander</p> <p>BURGOS Data: 2002ko maiatzaren 8a Ordua: 17:30 (1. deialdia) 18:00 (2. deialdia) Lekua: Aula Magna de la Facultad de Derecho de la Univ. de Burgos, Burgos.</p> <p>Eguneko gai-zerrenda (Berdina Bazkide Kontsumitzaileen Prestamen-Batzorde guztietarako)</p> <ol style="list-style-type: none"> Aurkeztapena Kooperatibaren informazioa Bestelakoak. Eskari-galderak 	<p>Deialdia</p> <p>GIPUZKOA Data: 2002ko maiatzaren 9a Ordua: 17:30 (1. deialdia) 18:00 (2. deialdia) Lekua: Kursaal Auditorioa, Donostia.</p> <p>NAFARROA Data: 2002ko maiatzaren 13a Ordua: 17:30 (1. deialdia) 18:00 (2. deialdia) Lekua: Gayarre Antzokia, Iruñea.</p> <p>BIZKAIA Data: 2002ko maiatzaren 14a Ordua: 17:30 (1. deialdia) 18:00 (2. deialdia) Lekua: Euskalduna Jauregia, Bilbo.</p> <p>ERRIOXA Data: 2002ko maiatzaren 15a Ordua: 17:30 (1. deialdia) 18:00 (2. deialdia) Lekua: Udai Auditorioa, Logroño.</p> <p>Deialdia</p> <p>BIZKAIA Data: 2002ko maiatzaren 19a Ordua: 17:00 (1. deialdia) 17:30 (2. deialdia) Lekua: Arriola Antzokia, Bilbo.</p> <p>ARABA Data: 2002ko maiatzaren 26a Ordua: 17:00 (1. deialdia) 17:30 (2. deialdia) Lekua: Mendizorrotxa (Udai Kirolegia), Gasteiz.</p> <p>Eguneko gai-zerrenda (Berdina Lan-Bazkideen Prestamen-Batzorde guztietarako)</p> <ol style="list-style-type: none"> Sozietatearen informazioa. 200 lko ekitaldiko, Txosten, Balantze eta Emaitzen Kontuaren buruzko informea. Zuzendaritzaren informazioa. Eskari Galderak.